

dFERIAk 2020 edizioko kartela aurkeztu du

dFERIA 2020 kartel lehiaketako lan irabazlea **ELECEROUVETRES** da (**L letra, ZERO zenbakia, V letra eta 3 zenbakia, hau da, L0V3**), Alfredo León diseinatzaile grafiko nafarrarena. Egilearen hitzetan, “kartelaren protagonismoa –kolore gorriak indartsu erakartzen baitu arreta, brotxakada espontaneoak balira bezala– berebiziko imana da arte eszenikoentzat”. **“Mantxa gorri bat, elkarri gaina hartzen dioten pasio eta sentimenduena”, azpimarratzen du.** Sinpletasun kromatikoa eta potentzia bisuala, desira, indarra eta pasioa biltzen.

Izan ere, datorren dFERIAren gaia PASIOA izango da, ardatz horren inguruan garatuko da hein handi batean 2020 edizioko ildo editoriala.

Lehen adieran, “pasio” hitza nekaldiarekin, sufrimenduarekin, hots, kontzeptu negatiboekin lotzen da, denak ere oso lotuak jatorri etimologikoarekin, “patior” aditz latinoarekin. Terminoa bilakatuz joan da, ordea, konnotazio negatibo horietatik aldentuz eta beste batzuetara hurbilduz: gaur egun, pasioa aldarte desiragarria da, proiektuei ekitera bultzatzen duena eta, oro har, bizitzari aurre egiten laguntzen duena. Pasioa: jarduera, ideia, pertsona edo gauza baten alderako sentimendu bortitza.

Hala, dFERIAan, pasioa bizitzeko modu bat den aldetik izango dugu hizpide, norbanakoak egiten duen orotan ageri den zerbait, buru-belarri, erabat, ahal osoz ekiten dionean. Horretaz egingo dugu gogoeta. Eta gorputzaren eta hitzaren bitartez identifikatzen eta erretratzen saiatuko gara. dFERIA 2020 pasio hutsa izango da!

Konpainien izen-emateek gora: % 22 gehiago

2020ko jaialdirako **417 konpainiek** eman dute izena, beraien berritasunak ekartzeko hala antzerkian nola dantzan. Horrek esan nahi du 2019ko edizioan baino **% 22,65 gehiago** direla, iaz 340 konpainiek eman zuten izena. Jatorriaren arabera, **53 Euskal Herriko konpainiak** dira, **322 Espainiako estatuko** beste alde batzuetakoak, eta **42 nazioartekoak**: Frantzia, Argentina, Italia, Belgika, Alemania, Portugal, Kolonbia, Mexiko, Costa Rica, Brasil eta Uruguaiakoak.

Azkenik, 30 ikuskizun inguru hautatuko dira Donostiako feriaren 26. ediziorako. Donostiako espazio eszeniko nagusietan martxoaren 9tik 12ra egingo den dFERIA 2020ren programazioa urtarrilean jakinaraziko da.